

## **IDEIA NAGUSIAK:**

- **Algortako Karitate-Alabek (portu zaharreko monjak), lehen eskola bat zutenek orain giza-jantoki bat dute martxan.**
- **Giza-jantoki hau 9-10 urte darama martxan. Baina betidanik, (1987tik) jendea hurbiltzen zen zentru honetara laguntza eskatzen eta garai horretan ere, bokatak egiten zieten beharra zutenei.**
- **Momentu honetan 19 laguntzaile (boluntario) dituzte. Horrez gain, Sor Ascen da honen ardura daramana eta bere aizpa batzuk.**
- **Gaur egun, 16-24 pertsona datoz egunero jantoki honetan jateko. Gainera, arropak garbitzeko aukera dute, dutxa hartzeko aukera eta joatean, afaria plastikozko poltsa batean eramanez dezakete (bokata bat, fruta...). Gainera, musulmanak ere etortzen direnez, saiatzeko dira hauentzat txerria ez ematen eta bere ordez beste gauza batzuk ipintzen.**
- **Gaur egun, konponketa batzuk egiten ari dira, lo egiteko zerbitzu bat izateko ere. Beraien asmoa da 10 pertsona etortzea lo egitera**
- **Lo egiteko zerbitzua martxan jarri nahi da, hotzarekin kale gorrian ez egiteko lo. Baina denek ez dute nahi zerbitzu hau erabili, ezin dutelako erre gela hauetan, beraien gauzak ezin direlako sartu...**
- **Giza-jantokira datozen pertsonak, giza-laguntzailearekin jartzen dira kontaktuan, ikusteko zein laguntzak izan ahal dituzten eta zelan hobe dezaketen beraien egoera.**
- **Funtzionamendua: “Catering” batetik ekartzen die janaria. Udaletxeak diru-laguntza ematen diete. Horrez gain, laguntza partikularrak ere daude. Gainera badaude beste lekuetako laguntzak ere: Zuricalday goxotegia, Janari Bilketa Bankua, beraien elkartetik ere diru laguntzak dituzte, jendeak janaria eramaten du ere.**
- **4 boluntarioekin hitz egin dugu (Sor Ascen zenbatu gabe). Batek komentatu du “Si venís estas Navidades 2 días, os cambia la vida. Aquí se aprende” Experiencia oso baliogarria eta aberatsa dela dio.**

- **Jantokira doazen pertsonak, janaria baino gehiago, kontaktu pertsonala baloratzen dutela diote. Gustora sentitzen dira, norbait berataz arduratzen denean eta beraien berotasuna sentitzen dutenean.**
- **SORTARAZI koekin lotura dute eta jan ostean, elkarte horretako boluntarioak ekintzak antolatzen dituzte. Pelikularen bat jarri, partxisera jolastu...Eta aprobeztatzen dute denbora hori beraiekin hitz egiteko eta hurbilketa bat izateko .**
- **ZER ESKATZEN DIGUTE GIZA-JANTOKIKOEK:**
  - **“KALEAN BIZITZEN IKUSTEN DITUGUN PERTSONAK, ERRESPETATZEA. DUINTASUNEZ TRATATZEA ETA PERTSONA BEZALA BEGIRATZEA**
  - **”MARGINAZIOAN SARTZEA OSO ERRAZA DA, BAINA HORTIK IRTETZEA, OSO ZAILA”**
  - **GUTARIKO EDONORI GERTA DAKIOKE KALEAN BUKATZEA!!!**